



ATE IREKIEN JARDUNALDIA KONPOSIZIOA

2023-2-7

Nori zuzenduak?

Graduko Konposizio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko urtarrilaren 31n** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldien helburua

Konposizio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

ERKOREKA, GERENABARRENA, LAZKANO y SCARANI

11:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak.

12:00-12:30 Ikastegiari bisita gidatu laburra

12:30-12:40 Tailer instrumentalari bisita

12:40-13:00 Konposizio tailerrari bisita

13:00-14:30 Espezialitateko irakasleekin banakako elkarrizketak

14:30 Ate irekien jardunaldiaren amaiera

Konposizio jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Josune Otxotorena Analisia, Konposizioa, Zuzendaritza eta Teknologiak Departamentuko buruarekin:
dpto.composiciondireccion@musikene.net